Buruntzaldeko lan mundua euskalduntzeko

b u l e t i n a

14

2010/09

# 41 enpresa hizkuntza-kudeaketa hobetzeko prest




• Hizkuntza-kudeaketan eskualdeko enpresek sumatzen dituzten beharren diagnostikoa egin dute Buruntzaldeko udalek. Horretarako, 10 langiletik gorako eskualdeko 390 enpresekin jarri dira harremanetan, eta galdetegi bat osatzea eskatu diete. 150 enpresek galdetegia erantzun dute galdetegia, eta 41 enpresek adierazi dute hobekuntzak egiteko prest daudela, besteak beste, errotulazioa, web orria eta langileentzako zein bezeroentzako idazkiak euskaratzeko asmoa.

• Eskualdeko udalak eskaintza zehatza prestatzen ari dira enpresa horientzat eta hemendik aurrera arlo horretan aurrerapausoak eman nahi dituzten enpresentzat. Urritik aurrera haiekin jarriko gara harremanetan, proposamenak adostu eta abiatzeko.

## Asturiasko Printzea saria elkar ulertzeari



• Aurtengo Asturiasko printzearen letren saria Amin Maalouf idazleari eman diote**.** Beiruten jaio zen, eta, Libanoko gerra zibilaren ondorioz, Frantziara alde egin zuen. Idatzitako liburuetan tarte handia eskaintzen dio elkarbizitzari, ekialde eta mendebaldeko kulturei eta erlijioei. “Identidades asesinas” liburuan tarte berezia egiten die hizkuntzei IV. atalean. Hona hemen pasarte batzuk:

• “¿Por qué habríamos de preocuparnos menos por la diversidad de culturas humanas que por la diversidad de especies animales o vegetales?” “De todas las pertenencias que atesoramos, la lengua es casi siempre una de las más determinantes.” “… un hombre puede vivir sin tener una religión, pero no, evidentemente sin tener una lengua.” “…la religión tiene vocación de exclusividad, y la lengua no.” “… la lengua tiene la maravillosa particularidad de que es a un tiempo factor de identidad e instrumento de comunicación. Por eso, y contrariamente al deseo formulado en el caso de la religión, extraer lo lingüístico del ámbito de la identidad no me parece ni factible ni conveniente. Es vocación de la lengua seguir siendo el eje de la identidad cultural, y la diversidad lingüística el eje de toda diversidad.” “Nada hay más peligroso que tratar de cortar el maternal cordón que une a un hombre con su lengua. Cuando se corta, o se perturba gravemente, ello afecta de manera desastrosa a su personalidad entera.” Informazioa gehiago hemen

## Dolça Catalunya

• Izenburu hori du irailaren 12an El País egunkarian argitaratutako iritzi artikulu interesgarri batek. Bertan, Xerardo Estévez arkitektuak Espainia barruan egon daitezkeen desberdintasunen arteko elkarbizitzaren aldeko argudioak azaltzen ditu. Hau duzue artikuluaren hasiera::

• “¿Quién no entiende el título? Creo que solo quien no está dispuesto a hacerlo. En el mundo global es esencial disponer de una actitud positiva para poder comunicarnos, pues las lenguas pueden ser lugar de encuentro o de enfrentamiento. Además, como dice Pasqual Maragall, las tres lenguas cooficiales del Estado son tan españolas como el castellano**.**

Si las autonomías con idioma propio no implementan su uso, ¿quién lo va a hacer? Si no lo hacen, se hieren de muerte y desaparecerán. Aunque hay quien sostiene que no pasaría nada, sería lo mismo que permitir que se destrozase nuestro románico.”

• Artikulu osoa irakurtzeko hemen

## Euskaltegira!

• Matrikulazio kanpaina martxan da, eta eskualdeko euskaltegietan izena emateko aukera dugu. Gauzak errazteko, informazio guztia jasota dago Buruntzaldearen webean. Lehenengo, automailaketa egiteko aukera; ondoren, euskaltegi guztien eskaintza mailakatua; eta, amaitzeko, ikasleentzako dirulaguntzei buruzko informazioa. Gehiago jakiteko hemen

BURUNTZALDEA
Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udalak. Euskarako Batzordeak.
**www.buruntzaldea.org**